

EUROA indarrean jartzeko hamasei egun falta direla-eta, EGUNKARIAK artikulu sorta bat argitaratuko du, bi ataletan. Lehendabizikoak Europako Batasunaren sorrera eta garapena jorratuko du; bigarrenak, aldiz, euroari berari helduko dio, moneta bakarraren ezaugarri eta ondorioak aztertuz.

Testuak: Ainhoa Oiartzabal

## Batasunaren lehen oinarriak

Lehen Mundu Gerra bukatu eta berehala entzun ziren Europa batuaren aldeko lehen aldarrikapenak. Hain zuzen ere, Frantzia eta Alemania izan ziren aipatu batasuna egiteko asmo eta indar gehien jarri zutenak, eta oraindik ere batasunaren ardatz dira. Hala, Frantziako lehen ministro Briand eta Alemaniako Streisemann-ek landu zituzten aipatu batasunaren lehen ideiak, gerrate eta borrokatu gehiago izatea saihesteko. Baina asmoak airean gelditu ziren, 1933tik aurrera hasi ziren mugimendu nazionalisten eraginez. Alemanian indarra hartu zuen nazismoak, eta Hitler-ek atzera bota zuen Lehen Mundu Gerraren ostean Europa batua eraikitzeke zegoen asmo berri hura.

Bigarren Mundu Gerrak zatituta eta suminduta utzi zuen Europa. Kontinentea ahituta zegoen ekonomia eta politika aldetik, eta indar handiko bi potentzia zituen alboan: EEBBak eta Sobiet Batasuna, alegia. Bi potentzia horiek, gainera, Europa zuten beren Gerra hotza egiteko leku. Gauzak horrela, Europako herrialdeak indarberritzeko, hainbat akordio eta hitzarmen egiten hasi ziren estatuen artean. Aipatu tratatuek, helburu politikoak baino gehiago, defentsa militarra bermatzeko eta onura ekonomikoak lortzeko xedea zuten. Ekimen horietako bat da, hain zuzen, Belgika, Holanda eta Luxenburgoren artean osatu zuten Benelux delakoa. Europako herrialdeen arteko batasun ekonomikoaren lehenengo pausetako bat izan zen hori. Gerra hotzeko garai hartan, 1949. urtean, defentsa militarra ziurtatzeko erakundea sortu zuten. Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundea (NATO) Europako hainbat herrialdek, EEBBek eta Kanadak eratu zuten, Sobiet Batasunari aurre egiteko.

Mendearen erdialdean, ordu arteko baino antolaketa sendoa-goak hasi ziren egiten Europako herrialdeen artean. Marshall planaren bitartez eta EEBB laguntzaz, Europako sistema ekonomiko bakarra osatzen hasi zen 1947. urtearen inguruan. Hala, EEB-



Erromako Tratatuaren sinatzeko ekitaldia: batasunaren lehen pausoa izan zen.

ARTXIBOKOA

Ben laguntza bideratzeko, Europako antolaketa ekonomiko eratu zen. Asmo horrek aduanen muga zergak batzeko ideia zuen, besteak beste.

### Europako Batasunaren gainean iritzien batasuna falta

Europa batua nola egin erabakitzeke, ordea, ez zegoen batasunik. Aipatu beharrekoa da 1948ko Hagako bilkuran Europa antolatzeko entzun ziren bi ideia ezberdin. Belgika, Italia, Alemania eta Frantziak, adibidez, Europa antolatuko zuten egitura sendo bat nahi zuten, Europako estatuen gaindiko antolaketa alegia; Erresuma Batuak, aldiz, Europako estatuen subiranotasuna ongi gordeko zuten egitura arinagoa nahi zuten, herrialdeen arteko elkarkidetzaren besterik ez zuten gogoan. Winston Churchillek argi eta garbi esan zuen Erresuma Batua ez zela batasunaren bultzatzaile nagusia izango. Bi iritzi ezberdin horiek eztabaida eta mugimendua sortu zuten Europako herrialdeen antolaketa bateratu bat izateko ideiarri dagokionez.

### Ikatz eta Altzairuaren Elkarteak, batasunaren lehen urratsa

ALEMANIA, Frantzia, Italia eta Beneluxko hiru estatuek eratu zuten, 1951n, Ikatx eta Altzairuaren Elkarteak, CECA. Elkarte hori izan zen, hain zuzen, Europa batua eratzen hasteko lehen oinarria. Robert Schuman Frantziako Kanpo Arazoetako ministroak iragarri zuen bezalaxe, CECAren bitartez ekin zioten Europako estatuek elkarkidetzaren gauzatzeari. Izan ere, Europako Elkarteak kide ziren estatuetako industriaren beharrak asetzeko gai zen ikatz eta altzairuaren ekoizpenak batu zituen erakunde berria. Gainera, ekoizpen horien gainean erabakiak hartzeko erakundea sortu zuten CECAko sei estatuek. Hala, sektorearen gainean erabakitzeke nazioz gaindiko erakunde amankomun eta independentea antolatua zen. Azkenik, Europako integrazioa hasi zen.

Gauzak horrela, 1949. urtean Europako Kontseilua sortu zen Estrasburgon. Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Danimarka, Norvegia, Suedia, Irlanda eta Beneluxeko hiru estatuek (Belgika, Holanda eta Luxenburgoko) osatu zuten aipatu erakundea. Honek, baina, helburu zabalegiak eta ongi zehaztugabeak zituen. Izan ere, Europa defentza edota ekonomikoki garatzea zituen xede, zeregin hori nola egingo zuten definitu gabe. Gainera, gobernu arteko funtzionamenduen menpe zegoen, estatu parte hartzaile guztien oniritzia behar zen erabakiak hartze-

ko, eta horrek asko zailtzen zuen bere funtzionamendua. Ondorioz, Europako herrialdeen artean sortu ziren erakunde ugari ongi funtzionatzen ez zutelako zirela, asko kostatzen baitzen gauzak erabaki eta martxan jartzea. Hala ere, Europako estatuen egoera ekonomiko eta soziala hobetzen ari zen. Elkarteak merezi izan zuen ustea zabaldu zen.

### Ekimen ekonomikoetatik batasun politikorantz

1950. urtean berebiziko garrantzia izan zuen elkarteak egin zuten Alemania eta Frantziaren

arteak. Gerra garaiko etsatasuna albo batera utzi eta Italia eta Beneluxeko herrialdeak lagun hartuta, Alzairu eta Ikatxaren Sal-erosketa egiteko Elkarteak sortu zuten: CECA alegia. Izan ere, Frantziako plan ekonomikoaren komisario Jean Monnetek, Frantziako Kanpo Arazoetarako ministro Schumanen planari jarraituz, Europako Elkarteak ekimen praktikotzat gauzatu behar zela uste zuen.

Ildo beretik eratu zuten Defentsarako Europako Komunitatea Frantzia, Italia, Alemania, eta Beneluxek 1952. urtean. Bestalde, 1953. urtetik 1955. urtera arte hainbat saiakera egin ziren Europako batasun politikoa lortzeko. Besteak beste, kanpo politika bateratzea eta merkatu bakarra lortzea ziren saio horien asmoak. Hala ere, Frantziako Parlamentuak atzera egin zuen, eta bere horretan gelditu zen batasun politikoa arautuko zuten antolaketa.

Nolanahi ere, Frantziako Monnet, Belgikako Spaak eta Holandako Beyen ministroek Messinan egin zuten bilkurak gerora begira hainbat akordio lortzeko balio izan zuen. Harrez gero bi eginkizun berri hasi ziren aztertzen CECAren biltzen ziren Europako sei herrialdeak: energia atomikoaren gaineko akordioa eta Europako estatuen arteko oztoko komertzialak kentzea. Londresek ez zuten prozesu horretan parte hartu.

Horren ondorioz sortu ziren Europako Energia Atomikoaren Elkarteak eta Europako Elkarte Ekonomikoa eratzeke Tratatuak. Azken hitzarmen honek Europako herrialdeak elkartu, garapen ekonomikoan lagundu eta herrialdeen baldintza ekonomiko eta sozialak hobetzea zuen helburu. Horren guztia ondoz lortzeko zuten merkatu bakar eta lehiakorra, eta, ondorioz, Europako batasuna.

Spaak txostena delakoa bildu eta aipatu herrialdeek onartutako akordio horiek dira, hain zuzen, Erromako Tratatuaren (1957) funtsa. Bertan deliberatu zuten sei estatu horiek: Alemania, Frantzia, Italia, Belgika, Holanda eta Luxenburgoko muga-zergen batasuna egitea, herrialdeen arteko trukeak errazteko neurriak hartzea eta, era berean, elkarren artean adosturiko politika ekonomikoa garatzen hastea.

Europa antolatzeko  
zeuden bi ideia  
ezberdinek lagundu  
egin zuten  
batasunaren ideia  
txertatzen

GIANI  
koene  
lian E  
hitz e  
ko ka  
eraku  
Mend  
tan o  
1957a  
artera  
siaren  
garr.

Zeir  
mal  
pak  
ordu  
195

inperi  
eguna  
artek  
abene  
dolarr  
Batue  
nahi  
Europ  
zia ez  
presid  
Ordu  
hama  
ondor  
Europ  
nazio  
bat fin  
maila  
zen ga  
Eur  
grazio  
tua 19  
izan z  
pako  
Elkart  
lua so  
europ  
beste

Hasierako urteak (1923-1957)

◆ Gianfranco Pala ◆ Erromako La Sapienza Unibertsitateko Industri Ekonomiako katedraduna

# «Erromako Trataturia Europaren inperialismoaren hasiera izan zen»

GIANFRANCO PALA ahots kritikoaren artean kokatzen da Italian Europako Batasunari buruz hitz egitean. Industri Ekonomiako katedradun horren arabera, erakunde horren sorrera Europa Mendebaldeko «asmo inperialista» oinarritu zen. Bere ustez, 1957an osatu zen elkarte nazioartean ziharduen Italiako burgesiarentzat soilik izan zen onuragarri.

■ Zein garrantzia izan zuen Erromako Trataturia (1957) Europako Elkartearen eraikitze orduan?

1957. urteko martxoaren 25a inperialismo europarra sortu zen eguna dela esan daiteke. Nazioarteko baloreak 1958. urteko abenduaren 27an jarri ziren dolarren maila berean. Estatu Batuek askoz ere lehenago ezarri nahi zuten neurri hori, baina Europako kapitalak, bere ahulezia ezagun zuela, amerikarren presioak jasaten jakin zuen. Orduan, 1958. urtean, 50.eko hamarkadako garapenaren ondorioz indarra hartu zuten Europako baloreek erabaki zuten nazioarteko elkartrukean dolar bat finkatzea. Gainera, nazioarte mailako likidazio eskaera handia zen garai hartan.

Europarentzat benetako integrazio ekonomikoaren abiapuntua 1951. urteko apirilaren 18a izan zen, Parisen. Izan ere, Europako Itatz eta Altzairuaren Elkarte eta Europako Kontseilua sortu ziren orduan: lehenago europazaletasun horren idealak besterik ez ziren aldarrikatu

(gehienbat katolikoan aldetik, Schuman, Adenauer eta De Gasperi adibidez; baina baita laikoen aldetik ere, Spaak eta Spinelli kasu), baina jada agerian jartzen zituzten Europako Estatu Batuen asmo inperialistak, hamarkada batzuk lehenago Hobson eta Leninek gogor kritikatu zituzten asmoak.

■ Europako Itatz eta Altzairuaren Elkartearen batasunaren aintzindaria izan zen. Nolako protagonismoa izan zuen Italiak bertan?

Italiak hazten ari zen potentzia inperialista baten moduan hartu zuen parte integrazio prozesu

«Italiako industriak, onura batzuen trukean, ez zuen duda izpirik izan nekazaritzaren sektorea sakrifikatzeko eta Europako Elkartearekin bat egiteko. Horrek ekarri zituen eragin larriak oraindik ere indarrean segitzen dute»

horretan, ez lehen lerroko potentzia gisa, baina bai osagarri moduan. Europako Batasunak Italiako industriaren babesa jaso zuen -Fiat taldea buru zela eta industria mekaniko, kimiko eta energiaren sektoreak bultzatua-

eta sektore horiek, onura batzuen trukean, ez zuten duda izan nekazaritza sakrifikatzeko. Horrek ekarri zituen eragin larriak bizirik daude oraindik.

■ Zein zen Italiako egoera ekonomiko eta soziala Segni lehen ministro zen garaian?

Prozesuaren ondorio larriak, beti bezala, langileek pairatu zituzten. Bizi baldintzen hobekuntza txiki baten truke emigratzera, esplotazioaren menpe lan egitera eta memoria historikoa galtzera behartu zituzten. Italia, Europako beste herrialdeak bezala, mirari ekonomikoa delakoan murgilduta zegoen 50.eko hamarkadan.

Erromako Trataturia sinatu baino hilabete lehenago, Alderdi Sozialistaren biltzarrak komunistengandik banatzea erabaki zuen. Trataturia sinatu eta hilabetera, Kontseilu Demokratikoa lehendakari Antonio Segni dimititzera behartu zuten alderdiaren aginduz. Ondorioz, Errepublikako presidente demokristau Gronchi ideologia bakarreko gobernu osatzera bultzatu zuten, betiere gobernu demokristaua, eta, botu neofasizistek babesturikoa. Gobernu hark denbora gutxi iraun zuen, baina garai hartako giro politikoak mesede egin zien ezker moderatuari.

■ Zergatik elkartu zen Italia Benelux, Alemania eta Frantziarekin Europako Elkarte delakoan?

Italiako burgesiaren ordezkaritza politikoak argi erakusten zuen Italiako interesen dualtasuna. Zakur italiarra bere jabe ame-

rikarrarekin zuen harremanarekin batera -De Gasperik dolar amerikarrekin zien obedentzia-, Alemaniarekin aspaldiko laguntasuna sendotzen hasi zen. Bien

dira mundu mailan, gaur egungo Europako zaharkitua gelditu eta nazioarteko fase inperialista eta neokorporatibistaren kontraesan eraginpean baitaude.

■ Zein ondorio ekarri zituen Erromako Trataturia?


1972an bukatu behar zen Europako Batasunaren prozesua 20 urtez atzeratu zen, 1992ra arte (Maastrichteko Ituna adostu arte). Atzerapen horrek argi azaltzen ditu hainbat fenomeno, batez ere, Italiako edota Italian lan egiten zuten nazioarteko kapitalaren interesei buruz, Europako Elkartearen sortzeko burubeltz aritu baitziren lanean. Apostu horrek Italiako industriari kapitala pilatzen lagundu zion, eta bere ezaugarri nagusia finantzatzeko erabiltzen zuten bide monopolista izan zen. Langileen esplotazio eta kapitalaren pilaketaren bitartez merkatu berrietara zabaldu zen Italia, estatu inperialisten artean bosgarren postua lortu arte.

■ EEBBek zeresana izango zuten prozesu horretan.

Bai, noski. Europako Elkartearen garapenak bat egin zuen 1960-70an EEBBetan hasi eta oraindik indarrean jarraitzen duen mundu mailako krisi luzearekin. Hori dela-eta, EEBBek ez zuten Europako indarra delakoarekin lehiatu nahi, ez baitzuden hari aurre egiteko egoera onean. Beren hegemonia ez galtzeko, kontra egiteko estrategia bat eraman zuten aurrera (1974. urteko Kissinger plana), eta horrela, Europako Batasunaren prozesua 20 urtez atzeratu zuten.

«70eko hamarkadan pairatu zuten krisia zela eta, EEBBek ez zuten Europako indarrarekin lehiatu nahi, eta, 'Kissinger planaren' bidez, Europako batasunaren prozesua hogeituzte geldiaraztea lortu zuten amerikarrek»

bitartean, Aldo Moro EEBBetik bereiztea erabaki zuen: aukera hori egitea, Kissinger-en mehatxuen ondoren, bere biziarekin ordaindu zuen. Modu berean, Andreotti erdigune politikoa Alemaniako kapitaleruntz bideratzea erabaki zuenean, aspaldiko laguntzak galdu zituen. Azkenean, mafien krimenetaz akusatuta, epaitegietan bukatu du. Gertaera horiek Erromako Trataturaren geroztik eman diren arren, azken urteotan izan den prozesu historikoaren sustraie-tan arakatzeko balio dute. Prozesu horretako alderdi eta buruzagi politikoak ordezkatuak izaten ari



**BAI,**  
**HARPIDETZA**  
**SAILA?**

902 30 02 23

TELEFONOAK: 943 30 02 22  
**Egunkaria** 902 30 02 23  
 FAXA: 943 30 07 07  
 e-mail: harpidetza@egunkaria.jalgi.com  
 web gunea: www.jalgi.com/Egunkaria

**JAR ZAITEZ**  
**GUREKIN**  
**HARREMANETAN**

HARPIDETZA BERRIAK  
 IRADOKIZUNAK...  
 PROMOZIOAK...  
 ZALANTZAK...  
 GALDERAK...



JOXE ANGEL IRIBARRENA  
 EGUNERO JASOTZEN DU  
 EGUNKARIA BERE ETXEAN

GURE BIZITZA  
 EUSKARAZ  
 EGIN NAHI  
 BADUGU, ZER HOBE  
 GOIZEAN GOIZ  
 EGUNKARIA  
 IRAKURRIZ  
 HASTE BAINO

# Jeneralaren itzal luzea

*De Gaulle britainiarrak Europako Elkartean sartzeari oztopatu zuen beto eskubidearen bidez*

Danimarka, Irlanda eta Erresuma Batua 1972. urtean sartu ziren Europako Ekonomia Elkartean (EEE). Londresek Frantziak jarritako oztopoak gainditu behar izan zituen prozesu honetan. Izan ere, De Gaulle jeneralak Luxenburgoko Hitzarmeneko beto eskubidea erabili zuen britainiarren sarrera zaitzeko.

Erromako Tratatuaren ondorengo (1957) Alemania, Frantzia, Italia, Holanda, Luxenburgoko eta Belgikak osatu berri zuten Europako Ekonomia Elkartea pixkanaka-pixkanaka hasi zen aurrepausoak ematen. Hala, 1959. urtean herrialdeen arteko aduana-zergak murriztu zituen. 1960an, berriz, Europako Truke Librearen Elkartea sortu zuten, eta Europako Gizarte Fondoa ere urte berean eratu zen. Gauzak horrela, Europako merkatua aurrera zihoala zirudien.


Hala ere, 1962an adostutako nekazaritza politika izan zen Erromako Tratatuaren ostean eginiko ekimen nagusi eta zailenetako bat. Nekazaritza produktuei prezio bateratuak jartzeko neurriak hartu ziren, eta mundu osoko merkatuan lehiatu ahal izateko laguntza eskaini zitzaion beharrezan zeuden Europako Elkarteko herrialdeei. Horrekin, Europako ekoizpenari lehenetsua eman, eta, 1964. urterako, Europako Ekonomia Elkarteko nekazaritza ekoizpenek salneurri bera izatea lortu nahi zuten seiek. Estatu batetik bestera alde handiak zeuden, eta horiek konpontzen laguntzeko hainbat ahal-egin egin behar izan zituen EEEK.

### Frantziaren jarrera ezkorra

Europako Ekonomia Elkartea osatzen zuten sei herrialdeak batasan politikoa gauzatzen hasi zirenean, EEEen batzeko eskaera berriak heldu ziren. 1961ean Erresuma Batua, Danimarkak, Irlandak eta Norvegiak bertan sartzeko asmoa agertu zuten. Izan ere, Europako Elkartea bere merkatua osatzen ari zen, eta Erresuma Batua beldur zen esparru ekonomiko horretatik kanpo gelditu zitekeelako.


Frantziako De Gaulle jeneralak ez zuen Erresuma Batua atxikitzerik nahi, eta eten egin zituen Londresek Europako Ekonomia Elkartera sartzeko hasi zituen negoziaketak. De Gaulle esanetan, Erresuma Batua ez zen Europako gainerako herrialdeak bezain «europarra». Gainera, Erresuma Batua Commonwealthe-ko herrialdeekiko zuen lehenetsunak Europako Nekazaritza Politikan txarto eragingo zuela uste zuen De Gaulle.

Urte batzuk geroago, 1965. urtean, EEEen lehen krisi serioa suertatu zen. Nekazaritza politikaren finantzaketari buruzko ikuspegi ezberdinengatik lehertu



Erresuma Batua 1972. urtean sartu zen EEEen. Argazkian, bertako Parlamentua.

ARTXIBOKOA



zen krisia. Frantziak Europako Ministroen Kontseiluko bileretara joateari utzi zion, Europako Batzordeak Elkartea finantzatzeko proposatu zituen neurrien

aurka baitzegoen. Aipatu proposamenek EEEko estatuen arteko ekimen instituzionala eskatzen zuten. Europako Batasuna herrialdeen errekurtso propioe-

tatik eta muga-zerga bateratuen bitartez finantzatzearen aldeko jarrera zuen Batzordeak, eta horrek estatuen gaindiko antolaketa sendoa eskatzen zuen. De

Gaulle jeneralak ez zuen ekimen instituzional hori nahi. Bere nahia ez zen estatuen gaindiko antolaketa; bakoitzaren subiranotasuna errespetatuz kanpo politika edo defentsa gaiak arautuko zituen Europako Elkartea soilik nahi zuen De Gaulle. Frantziaren jarreraren ondorioz ez zen EEEren garapen instituzionala eman.

1966an Luxenburgon seiek sinatu zuten akordioaren bitartez, Europako Ekonomia Elkartearen barruan erabakiak aho batez onartzea eta beto eskubidea edukitzea adostu zen. Hitzarmen horren bidez krisia amaitu arren, albo batera gelditu zen Europako Batzordearen asmo nagusia, hau da, Elkartearen garapen instituzionala.

Egoera horretan, 1967an, Elkartean sartzeko baimena eskatu zuten beste behin Erresuma Batua, Irlandak, Danimarkak eta Norvegiak. De Gaulle beto eskubidea erabili zuen, eta Erresuma Batuari Europako Elkartean sartzeari eragotzi zion.

### Agintarien aldatetako eta herrialde berrien elkarketa

1969an izan ziren agintarien aldatetek berebiziko garrantzia izan zuten EEEen garapenean. Hala, De Gaulle dimisioa egin zuen, eta Pompidou jarri zen haren lekuan. Alemanian, berriz, Willy Brandt kantzilerra zegoen agintean, eta Edward Heath Erresuma Batuko lehen ministro postuan. Heath eta Pompidouren arteko harremanak ezin hobekak ziren.

Bien bitartean, politika ekonomikoak bateratzea eta monetar politikari buruzko proiektua egitea erabaki zuten sei herrialdeek. Horretaz gainera, Hagan eginko bilkuran, merkatu bakarra eratzea eta Europako integrazioan aurrera egiteko konpromisoa hartu zuten. Era berean, negoziazioak hasi ziren Elkartean sartzeko eskaera egin zuten lau herrialde berriekin.

Europako Ekonomia Elkartea egoera horretan zegoela sartu ziren 1972an Erresuma Batua, Danimarka, Irlanda eta Norvegia. Oslo, ordea, irten egin zen bertatik, norvegiarren artean eginiko erreferendumean ezezkoa nagusitu ondoren.

EEEen herrialde gehiago egoteak arazoak sortuko zituela uste zenez, Elkarteko estatuek behartu egin zuten euren burua Elkarteko arauak betetzera. Erabakiak hiru kide berrien eta gerora EEEra hurbil zitezkeen beste estatuen jokamoldeak arau komunitarioen barrura mugatzeko balio izan zuen. Ondorioz, estatuen gaindiko antolaketa protagonismoa hartzen hasi zen.

**Lehen hedatzea (1957-1973)**

◆ **James Callaghan** ◆ Erresuma Batuko Lehen Ministro ohia eta Lorden Ganberako kidea

# «De Gaulleek EEBBak ahultzea nahi zuen; horrexegatik oztopatu zuen gure sarrera»

JAMES CALLAGHAN ministro zen Londresko Gobernuak EEEen sartzeari negoziatzen jardun zuen garaian, eta Erresuma Batuko lehen ministroa izan zen gerora. Tony Blairren aurretik izaniko azken gobernu laboristako buruaren arabera, Frantziak ez zuen britainiarrak EEEen sartzetik nahi, Londres isolatuz Washingtonen posizioa ahuldu nahi zuelako.

■ **Erresuma Batuari 50eko hamarkadan egin zioten Europako Elkartean sartzeko gonbita. Hala ere, ez zuen onartu, nazioz gaindiko egitura hartan burujabetza gal zezakeen beldur baitzen. Geroago, Londresen EEEko kide izateko eskabidea egin zuenean, aldatu zen ikusmolde hori?**

Bigarren Mundu Gerra amaitu eta gutxira proposatu zuten lehen aldiz Europako hainbat herritako natur baliabideak Erresuma Batukoekin lotzea. Orduan egin zuten Ikatz eta Altzairu Elkartea sortzeko proposamena, Beneluxeko herriak, Frantzia eta Alemania barne hartuz. Haiek bat egitearen alde nengoen, eta Kanpo Arazoetako ministroarekin mintzatu nintzen, Ernest Bevin-ekin. Bevinek, elkartzeko proposamena gorabehera, hitzez hitz honako hau esan zidan Frantziako Kanpo Arazoetako ministro Schumann jaunari buruz: «Ez gaitu onartuko». Elkarriketa haren fede eman badezaket ere, badakit Bevinek Schumannen jarreraz zuen iritzia oso eztabaidatua dela.

Proposamena egin baino lehentxoago, Erresuma Batuk ikatz meategien nazionalizazioa egin zuen. Gaiak eztabaida ugari sortu zituen urte askotan, eta Gobernuak, ziur aski, horregatik erabaki zuen Ikatz eta Altzairu Elkartera ez biltzea. Atzera begira, Erresuma Batuko Gobernuak agian bete-betean esku hartu beharko zukeen Elkartearen sorreran.

Urte batzuk geroago, Erresuma Batuk eskabidea egitea erabaki zuenean, burujabetza politikoaren galera posibleari gabe, Elkartearen izenari eman zitzaion garrantzia (Europako Ekonomia Elkartea), bereziki ekonomia hitza azpimarratuz.

■ **Zuek EEEen sartu zinetenean De Gaulle ez zegoen agintean. Hortaz, Frantziaren jarrera desberdina zen?**

De Gaulle jenerala Erresuma Batua Europako Ekonomia Elkartean sartzeari aurkakoa zen, gure herriaren eta Estatu Batuen artean oso lotura estuak zezudela uste zuelako. Garai hartan, dolarra erre bihur zitekeen,

hala eskatuz gero. De Gaulle hartu zuen dolarraren eta urraren arteko lotura hura hausteko erabakia, Estatu Batuen posizioa ahulduko zuela uste zuelako. Britainia Handia Elkartean sartuz gero, bere helburua lortzea zailagoa izan zela iruditzen zitzaion.

De Gaulle joan ondoren Georges Pompidouk hartu zuen agintea eta esku-hartze aktiboa izan zuen Erresuma Batuen sarrera Europako Ekonomia Elkartean lortze aldera egin ziren negoziazioetan.

■ **Zuk parte hartu zenuen Erresuma Batua EEEen sartzeko nego-**

*«Erresuma Batuk ikatz meategien nazionalizazioa egin zuen. Horregatik erabaki zuen ez biltzea Europako Ikatz eta Altzairu Elkartera. Atzera begira, agian esku hartu beharko zukeen Elkartearen sorreran»*

*«Britainiarren arteko euroeszeptizismoak behera egin du, eta jende askok Europaren aldeko jarrera hartu du, neurri batean Elkartearen baitan izan dugun esperientziagatik»*

■ **ziazioetan. Zein izan ziren gai korapilatsuenak, eta zergatik?**

1970eko hamarkadaren hasieran Britainia Handiaren eta Europako Elkartearen artean egindako negoziazioetan, batez ere, honako gai hauek kezkatu gintuzten: Commonwealth babesteko beharra, bereziki Zelanda Berriaren eta garapen bidean zeuden herrien posizioa; gure BEZ sistema iraunarazi nahi izatea; gure zerga- eta industria-politikei eusteko esku-bidea; gure finantza-ekarpenaren zentzuzkoa, eta Nekazaritza Politika Komunaren erreforma.

■ **Jakina da britainiarren euroeszeptizismoa. Duela hogeita bost urte egoera okerragoa zen. Zer jarrera zuten alderdi politikoei eta gizarteak?**

Arrazoi duzu diozunean duela hogeita bost urte euroeszeptiko gehiago zegoela Britainia Handian gaur egun baino. Euroes-

zeptizismoak behera egin du, eta, jakina, jende askok Europaren aldeko jarrera hartu du, neurri batean Elkartearen baitan izan dugun esperientziagatik, baita enpresa munduaren eta sindikatuen gidaritzagatik ere. Esperientzia praktikoa izan dute Bruselako eta beste hainbat lekutako homologoen lan egitean, eta industriako bi aldeek beren ikusmoldea aldatu dute.

Britainia Handiko iritzi publikoari dagokionez, beti iruditu zait eszeptikoagoa izan ohi dela oposizioan dagoen alderdi politikoa; gobernu ardurak dituen alderdiak, aldiz, errealismo handiagoz jokatu ohi du.

■ **Urte hauek guztiak igaro ondoren, zure ustez, zertan ez zenuen asmatu orduan egindakoetan, eta espero ez zenuen zerbait izan da negoziazioetan?**

Duela hogeita bost urte ez genuen lortu beharrezko aldaketak egitea gai zehatz batean, Nekazaritza Politika Komunean, eta ordudunik oso arazo garrantzitsua izan da Europako Batasunaren garapenerako. Oraindik ere kezka iturri da Britainia Handiak Elkartearen aurrekontuan egiten duen finantza-ekarpena. Uste dugu oraindik dagokiguna baino handiagoa dela, gure finantza posizioa Erresuma Batua baino aberatsagoak diren beste herri batzuenarekin alderatuz gero.

Federazioaren aldeko presioari dagokionez, desberdinak dira ingelesez hitz horren esanahian azpimarratzen dena eta Europako hainbat herritan duen esanahia. Alemaniak eta Frantziak federazioarekin aurrera egin nahi badute Britainia Handian hitzari ematen diogun esanahiaren ildotik, jakina, arazo ugari sortuko dira. Ez dugu horrelako desadostasunik sortu nahi. Beste batzuen kontua izango da erabakitzea zentzuzko zatiketarako eragin nahi dituzten Elkartearen baitan Federazioaren aldeko presioa egin. Espero dugu horrela ez jokatzea.

Dudarik ez dut Europako Batasunaren garapena beharrezkoa eta baliagarria dela Europako herrientzat mundu gero eta globalizatuago honetan. Europako Batasuna, dudarik gabe, onuragarria izango da jendearentzat, baldin eta Europa osoaren ikuspegitik erantzutea komeni den gaiez soilik arduratzen bada, eta estatu kideen esku uzten baditu nazio bakoitzean konpondu beharreko gaiak.



James Callaghan, Erresuma Batuko lehen ministro ohia.

ARTXIBOKOA



Egunkaria

**& kukubiltxo**

**GASTEIZ**

**Mendizorrotzako Kiroldegian**  
Abenduaren 17an, ostegunarekin,  
arratsaldeko 4etan

# Europako Legebiltzarraren sorrera: burokraziatik demokraziantz

EEEko bederatzi estatuek lehenengo eurodiputatuak aukeratu zituzten 1979an


Europako Elkartean arazoak sortzen hasi ziren 70eko hamarkadan. Alde batetik, EEEko estatuek hartu zituzten konpromisoak ez zituztelako bete, eta, bestetik, 1973. urtean krisi ekonomiko larria izan zelako. Petrolioaren salneurriak izugarriko igoera izan zuen, eta, Europaren hazkunde ekonomikoa lehengaien inportazioari esker garatu zenez, — eta haietan garrantzitsuenen artean petrolioak zegoen — kolokan jarri ziren Europako ekonomiaren oinarriak. Askoren ustez, hala ere, krisiak ondorio positiboak ekarri zizkion Europaren erakuntzari, azkartu egin baitzuen Elkartea politikoki sendotzeko prozesua. Izan ere, Alemania eta Frantziaren iritziz, egituraketa finko batek soilik aterako zuen kontinentea krisi ekonomikotik.

Petrolio prezioaren igoerak EEBBetako krisia eragin zuen, eta, ondorioz, dolarren gainbehera. Europako Ekonomia Elkartearen moneta sistema antolatzeko, Europako moneta sugea delakoa eratu zen, Elkartearen barruko estatuen diru eta finantza mundua dolarrean ez oinarritzeko. Baina hori ez zen nahikoa izan Irlanda, Italia edota Erresuma Batuentzat, herrialde horiek krisia gainditzeko beren irtenbide propioak bilatu baitzituzten. Beraz, nor bereari eusten saiatu zen estatuen arteko elkarlana albo batera utziz. Europako estatuen arteko lankidetzaren artean ez zegoen, nonbait, ongi erroturik.

## Europako Legebiltzarraren zuzenean aukeratzeko lehen hauteskundeak

Abagune horretan Alemania, Frantzia eta Erresuma Batuko agintariak aldatu egin ziren. Eta Alemaniako nahiz Frantziako agintari berriak, Helmut Schmidt eta Valéry Giscard d'Estaing, Europako antolaketa politikoaren aldekoak ziren. Erresuma Batuan, ordea, ez zen gauza bera gertatzen. Alderdi Laboristako Harold Wilsonen EEEko finantzaketa berregokitu eta Europako Legebiltzarraren eskumenak murriztu nahi zituen. Hala, 1975ean erreferenduma egin zen Erresuma Batuan Europako Elkartean jarraitu edo ez galdetzeko. Britainiarrek Elkartean jarraitzea erabaki zuten.

Bestalde, aurrepauso garrantzitsuak eman zituzten EEEk 1974. urtean Parisen eginiko biltzarrean: alde batetik, Elkartearen barruko batzordeak finkatzea erabaki zuen, eta, bestetik, Europako Legebiltzarraren zuzenean erabakitzeko hauteskundeak egitea. Neurri horiekin Europako bertako estatuen boterea sendotu nahi zuten, baina baita Elkartearen



beraren aginte maila ere. Hala, Europako Legebiltzarraren osatzeko lehen hauteskundeak deitu zituzten 1979an. Lehen bozketan horretan hautesleek %62k besterik ez zuten parte hartu.

Behin Legebiltzarraren eratu ondoren eta suge monetarioaren eragin urria kontuan izanda, Europako Moneta Sistema ezarri zuten 1978an, Europako dirua egonkortu eta atzerriko monetaren eragina saihesteko. Orduan hitz egin zuten lehen aldiz ECUa, EEEko moneta bakarra, sortzeko beharraz.

## Europako Batasunaren aldeko asmoak

1980ko hamarkadatik aurrera hasi ziren Europako estatuen arteko muga-zergak arintzen, eta urtebete geroago, berriz, Stuttgart-eko adierazpenaren bitartez, Europako Batasunaren aldeko apustu serioa egin zuten. Izan

## Gehiengo kualifikatua, erabakiak hartzeko tresna

ANTOLAKETA politikoari dagokionez, berriz, EEEen erabakiak hartzeko gehiengoaren nahiari kasu egiteko proposamena egin zuten bai Frantziak bai Alemaniak. Hala ere, Frantziak —Erresuma Batuarekin bat eginez— nahiago zuen erabakiak gehiengo kualifikatuaren bitartez hartzea. Sistema horrek mesede egingo zien botere ekonomikoa zuten herrialdeei. Hautu horren asmoa, ordea, ondorengo helburuak lortzea zen: erabakiak azkarrago hartu, deliberatzeko ahalmena handitu, eztabaida gehiago sortarazi, estatuen arteko aliantzak areagotu, eta erabakien kalitatea hobetu. Era berean, Europako Batzordeak eskumen gehiago izateko, Europako Kontseilua gehiagotan biltzeko —estatuetako ministroak, alegia—, eta Europako Legebiltzarrari erabakitzeko ahalmen gehiago eman zizkieten.

ere, Benelux, Frantzia eta Alemania merkatu librea errazteko antolaketa instituzionala irekitzeko prest agertu ziren. Estatu horiek eta EEEko enpresa indutrik presionatuta, muga-zergak kentzera behartu zituzten gaine-

rako estatuak. Neurri horiekin, Europako Ekonomia Elkartea EEBBak edota Japoniaren maila berean jartzea lortu nahi zuten.

1984. urtean Europako Batasunaren Tratatuaren egiteko saioa bere horretan gelditu zen. Hala

ere, garai horretan eztabaidagai gelditu ziren hainbat kontu. EEEren erreforma instituzionala adibidez, Europako Batzordearen Liburu Zuria delakoan jaso zituzten. Jacques Delors zen Batzordearen buru, eta kanpo politika bateratua nola batasun monetarioa gauzatzea ziren bere asmoak. Liburu horrek EEEen arazoak gainditzeko 300 neurri baino gehiago proposatu zituen.

Hala ere, Europako Elkarteko estatuek ez zuten uste erabaki horiek EEE dinamizatzen eta noizbait Europako Batasuna lortzen lagunduko zutenik.

## Bi abiadurako Europa: hegoaldeko estatuen sarrera

Elkarteko estatuen arteko aldeak zirela-eta, arazo handiak zeuden barne merkatua antolatzeko orduan. Bederatzi gobernuak ez ziren ados jartzen nekazaritza politika finantzatzeko orduan. Bien bitartean, Hego Europako herrialdeak Europara sartzeko ate joka ari ziren. 1975ean eta 1977an egin zuten Elkarteko kide izateko eskaera, hurrenez hurren, Greziak alde batetik eta Espainiak nola Portugalak bestetik. Grezia 1981ean sartu zen Europako Elkartean; bost urte geroago, berriz, Espainia eta Portugalen txanda iritsi zen. Bi herrialde horiek EEEen hain berandu onartzeko arrazoiak Alemania eta Frantziaren —Mitterrand eta Helmut Kohl zeuden agintean— mesfidantza eta Elkartean sartzeko bete behar zituzten baldintza gogorrak izan ziren. Erresuma Batua, Margaret Thatcher lehen ministroa zela, ez zegoen bi herrialde horiek Europako Elkartean sartzaren alde, haien industria eta teknologia urria baitzen. Bi estatuetako nekazaritzaren egoera ikusita, eskaini beharreko dirulaguntza handia zelako atzeratu zuten, azken batez, Portugal eta Espainiaren sarrera. Lisboak eta Madrilek beren ekonomia berregokitzeko saiatzeko konpromisoa hartu zuten, baina Elkartean sartzeko eragingo zizkien kalitei aurre egiteko laguntza eskatu zuten. Laguntza horien ezaugarriak, batez ere ekonomikoak, Europako Batasunaren oreka baldintzatzen segitzen dute egun.

Ainhoa Oiarzabal  
DONOSTIA

**Oharra:** Atzoko mapan bederatzi estatu barik, hamabost azaldu ziren. Soberako sei estatuen datuak oker zeuden —Austria, Suedia, Finlandia, Espainia, Portugal eta Grezia—.

aritu zen 19  
urtera bitarte  
pako. Ekono  
tzeko hasi zire  
suan: Europa  
Portugalgo Es  
ren ustez, her  
sartzea onura  
talde, Espain  
Europa Ekia  
EBn integra  
paper garran  
dutela dio Vic

■ Nolakoak i

eta Portuga  
negoziake  
urte lehen  
al zuen bi e

Greziak era

eta Portugal

zituzten neg

batetik, Grez

defenditu zit

pentsazioak e

nia eta Portug

tu behar zutel

grama berezi

ko Programa

zen Grezia et

beste herrial

eta haien ego

koa hobetzeko

Bestetik, arlo

nez, Greziak

Espainia eta

izan ere, EE

tzango zen, b

aren barruar

eta Portugal k

■ Gaur egun

dute Espain

EEE eta E

herrialdeen

tetan?

JA

G

H

«Ego Europako herrialdeen sarrera (1973-1986)»

♦ Victor Martins ♦ Europaren Integrazioarako Portugalgo Estatu idazkari ohia

# «Portugal Espainiaren egoera hobetu zain egon zen EEEra sartzeko»

VICTOR MARTINS buru-belarri aritu zen 1981. urtetik 1986. urtera bitartean Portugal Europako Ekonomia Elkartean sartzeko hasi ziren negoziazio prozesuan. Europaren Integrazioarako Portugalgo Estatu idazkari ohia- ren ustez, herrialde hori Europan sartzea onuragarria izan da. Bestalde, Espainiak eta Portugalak Europa Ekialdeko herrialdeak EEEri integratzeko prozesuan paper garrantzitsua bete behar dutela dio Victor Martinsek.

■ **Nolakoak izan ziren Espainia eta Portugalak EEEri sartzeko negoziaketak? Greziak, lau urte lehenago sartuta, atzeratu al zuten bi estatuen sarrera?**

Greziak eragin zuen Espainia eta Portugalak EEErekin eduki zituzten negoziaketetan. Alde batetik, Greziak bere interesak defenditu zituen; izan ere, konpentsazioak eskatu zituen Espainia eta Portugalak Elkartean sartu behar zutelako. Ondorioz, programa berezi bat (Mediterraneo Program Integratua) eratu zen Grezia eta Mediterraneo beste herrialdeei laguntza eman eta haien egoera sozioekonomikoa hobetzeko.

Bestetik, arlo politikoari dagokionez, Greziak lagundu egin zuen Espainia eta Portugalen sarrera. Izan ere, EEErentzat oso zaila izango zen, behin Grezia Elkartean barruan zegoela, Espainia eta Portugal kanpoan uztea.

■ **Gaur egun zein paper betetzen dute Espainiak eta Portugalak EEE eta Europa ekialdeko herrialdeen arteko negoziaketetan?**

Bi herrialdeek protagonismo berezia izan behar dute. Hori egiteko lehen arrazoia, Europa ekialdeko herrialdeek Espainia eta Portugalari ondorio kaltegarriak eragingo dizkietela da. Izan ere, kompetentzia ugaritu egingo da, baita kohesio fondoak jasoko dituzten herrialdeen kopurua ere. Finean, Europa ekialdeko herrialdeen elkarketak ondorio txarrak izango ditu Portugal eta Espainiarentzat. Hori dela-eta, bi herrialdeek jarrera oldarkorra eduki behar dute beren interesak defendatzeko. Agenda 2000ri dagokionez adibidez.

«Greziak, bere interesak defenditzeko, konpentsazioak eskatu zizkion EEEri. Izan ere, Espainia eta Portugal Elkartean sartzeko ondorio ekonomiko kaltegarriak ekarriko zizkion»

Baina herrialde berrien sarre- rak ondorio positiboak ere baditu, Iberiako herrialdeek onartu behar dituztenak, alajaina. Portugal eta Espainia dira EEEko herrialderik egokienak Europa ekialdeko herrialdeen batzea behar bezala ulertzeko. Izan ere, duela urte batzuk guk bide bera egin genuen. Portugal eta Espainia erreferente izan daitezke Txekiar Errepublikarentzat edota beste herrialdeentzat.

Beraz, bai eragin kaltegarriak ekarri dizkielako bai antzeko esperientzia izan dutelako hartu behar dute parte Iberiako Penin-

tsulako herrialdeek negoziaketa berrietan. Ez dugu jarrera defentsiboa eduki behar; oldarkorrak eta solidarioak izan, eta noski, gure interesak defenditu behar ditugu.

■ **Nolako harremana izan zuten elkarren artean Espainiak eta Portugalak negoziazio prozesuan?**

Espainia eta Portugalen arteko lankidetzaz ezinhobeia izan zen. Nik neronek hartu nuen parte negoziaketa prozesuan. Baina esan beharra dago Portugal bi urtez egon zela EEEra sartu gabe eta Espainiaren zain. Izan ere, Espainia oztopo izan zen Portugal sartzeko. batik bat, nekazaritzaren egoera txarra zelako. Hala ere, balorazio orokorra oso ona da, eta orduetik aurrera hobetzen joan dira bi herrialdeen arteko harremanak.

■ **Batasuna al zegoen Portugalgo Legebiltzarrean EEEra batzeko garaian?**

Ia indar politiko guztiak ados zeuden EEEra elkartzeko asmoarekin. Alderdi Komunista soilik zegoen Portugal Europan sartzearen aurka. Gaur egun, ordea, aldatu egin dute beren jarrera. Horretaz gainera, Portugalgo zenbait industria, batez ere, industria tradizionala (ehungintza, adibidez), EEEri sartzearen kontra zegoen. Europako konpentsaziaren beldur ziren. Baina 12 urte ondoren, Portugalgo indar politiko guztiak Europako integrazioaren aldekoak dira.



Portugal Europako Ekonomia Elkartean sartu zeneko sinadura ekitaldia.

ARTXIBOKOA

Ainhoa Oartzabal

DONOSTIA



**BAI, HARPIDETZA SAILA?**

TELEFONOAK: 943 30 02 22

Egunkaria 902 30 02 23

FAXA: 943 30 07 07

e-mail: harpidetza@egunkaria.jalgi.com

web gunea: www.jalgi.com/Egunkaria

**JAR ZAITEZ**

**GUREKIN**

**HARREMANETAN**

HARPIDETZA BERRIAK

IRADOKIZUNAK...

PROMOZIOAK...

ZALANTZAK...

GALDERAK...



JOXE ANGEL IRIBARREN EGUNERO JASOTZEN DU EGUNKARIA BERE ETXEAN

**GURE BIZITZA EUSKARAZ EGIN NAHI BADUGU, ZER HOBE GOIZEAN GOIZ EGUNKARIA IRAKURRIZ HASTEA BAINO**

# Maastrichteko Ituna, Europako Batasunaren abiapuntua

Suedia, Austria eta Finlandiaren sarrerak egonkortasuna eman zion EEERI

Krisi batek eman zion amaiera Europa Elkarre Ekonomikoaren hirugarren faseari. Krisi hori elkarteko kide ziren estatuen jarraera ezkorak eragin zuen, ez baitzuten uste EEERen egoera hobetzeko neurriak baliagarriak zirenik. Hala ere, aurrera jarraitu zuten Europako Batasunaren aldeko ekimenek. Hala, 1987. urtean sinatu zuten Europako Akta Bakarra. Agiriak berrikuntzak ekarri zituen Nekazaritza Politikaren Finantzaketan eta estatuen arteko merkataritzan. Gauza nabaria zen EEERen estatuek geroz eta argiago zutela Europako Moneta Batasunaren beharra. Hori zela-eta ekin zion 1993an Europako Batasunaren Tratatuak Europako Diru Batasuna eta Europako Batasuna osatzeko prozesuari.

## Sobiet Batasuna desagertzearen ondorioak


1989an, ordea, prozesu osoa hankaz gora jarri zuen gertaera garrantzitsu batek. Sobiet Batasuna desegin eta ordu arte munduko bigarren potentzia izan zen antolaketa politikoa eta ekonomikoa ezabatu egin zen. Sobiet Batasunaren desagertzeak azkartu egin zuen Alemania bateratzeko prozesua. Eta horrek kezka sortu zuen EEERen estatuen artean. Frantziak, adibidez, ez zuen Alemania bateratu eta indartsurik nahi. 1990ean, ordea, Berlingo harresia bota eta Alemania bakarra osatu zuten.

Abagune horretan, EEERek ez zuten jakin izan Europako pil-pilean zeuden gatazka politikoei behar bezala erantzuten. Gatazka horietako gehienak ordu arte Sobiet Batasunaren baitan biltzen ziren herrialdeetan izan ziren. Europako Elkarre herrialdeko barne gatazka konpontzeko gai ez izateak agerian jarri zuen batasun politikoen beharra.

## Europako Diru Batasuna elkargune

Hannoverko bilkuran (1988), Delors-ek bultzaturik, Europako Diru Batasuna nola eratu aztertzeko konpromisoa hartu zuten Elkarteko estatuek. Orduan planteatu eta Maastricht-eko agendan aztertzeko gelditu ziren gaien artean, Europako Gizarte Agiria hitzartzea eta mafiaren, droga-trafikoaren eta terrorismoaren aurkako neurri posibleak zeuden. Gai horien guztiengatik Europako Tratatu berri-tzeko eskatu zuten beste behin Elkarteko estatuek.

Europako Diru Batasuna eratzeari dagokionez, hasierakoak baino bide malguagoak proposa-



tu zituen Delors-ek: Estatu bakoitzak bere monetarekin jarraitzeko eta, aldi berean, Europako Diru Batasunaren parte hartzeko aukera proposatu zuen.

Garai berean, Elkarteko estatuen arteko hainbat gairi buruzko batasunaz hasi ziren hizketan: kanpo politikaz, Europako herritartasunaz eta Elkartearen erreforma instituzionalaz, hain zuzen. Baina herrialdeen arteko desadostasunak nagusitu ziren berriro. Espainiak eta Portugalak, adibidez, kohesio fondoan alde jardun zuten buru-belarri; Alemania eta Beneluxeko herrialdeek, berriz, instituzioen erreforma eskatzen zuten; eta Ingalaterrak, azkenik, ez zuen ezertxo ere egin nahi Europako integrazioaren alde. Beraz, Europako Batasuna berriro ere kolokan jarri zuten.

EEERen ekimen aipagarri eta arrakastatsua Europako Diru

## Maastrichten berronarpena, formalitatea baino gehiago

MAASTRICHTKO Ituna berronartzeko prozesua formalitate hutsa baino zerbait gehiago izan zen. Izan ere, Maastrichten hartu ziren erabakien gaineko eztabaidak agerian utzi zituen elkarteari buruzko ideia ezberdinak. Erreferendumen bidez egin zuten berronarpena Irlanda, Danimarka eta Frantziak. Irlandar gehienek aldeko jarraera azaldu zuten; Frantziak, berriz, zatiketa politikoa izan zen; eta Danimarkan, bi erreferendum egin behar izan zituzten. Izan ere, ezezkoa nagusitu zen Maastrichteko Itunari buruzko lehen erreferendumean.

Baina Europako Elkarre Danimarka elkartearen barruan nahi zuenez, ondorengo eskaini zioten: Europako Diru Batasunaren pixkanaka sartzeko aukera, eta Kanpo Politika eta Batasuneko Segurtasunetik kanpo gelditzeko aukera.

Erresuma Batuan iskanbila handia eragin zuen berronarpenak. Eta Danimarkako bigarren erreferenduma egin arte, John Major-ek ez zuen Beheko Ganbarara deitu. Ondoren, Legebiltzarreko Beheko Ganbara bildu zenean, Alderdi Laborista abstenitu egin zen, Erresuma Batuko giro politikoa ahulduta utziz.

Batasuna prozesua izan da. Elkarteko estatu guztiek —Diru Batasunaren parte hartu nahi zuten estatuek— 1999. urtea dute beren dirua Europako Moneta Sistemara egokitzeko epea. Hainbat adituen arabera, ordurako estatu guztiek betekota dituzte Elkarre ezarri dizkien baldintzak.

## Maastricht batasunaren oinarri

1991n Maastrichten egindako bilkuran, gizarte politikako gairik ez zuten jorratu. Hala ere, ordu arteko hainbat arazo konpontzeko eta Europako Batasuna sortzeko balio izan zuen, biltzarren ondotik egin baitzuten Europako Batasunaren Tratatuak.

Lehenik eta behin, Europako Elkartearen hiru zutabeek —Europako Elkarre, Justizia eta Kanpo Arazoetarako Batzardea eta Kanpo Politika eta Defentsarako Batzardea— bereizita jarraitzea erabaki zuten. Izan ere, hirurak elkartzeko proposamena egin zuen Holandak, eta hori aipatze hutsak iskanbila ugari sortu zuen Elkarteko estatuen artean. Tratatuaren bigarren erabakia Europako Batasuna eratu eta helburuak ezartzea izan zen. Batasunaren helburu nagusiak garapen ekonomikoa eta Europako Diru Batasuna, justizia mailako elkarlaketza eta elkarteko kide ziren estatuen eskubideen defentsa ziren.

Hori egin ahal izateko, ordea, Elkarteko erakunde eskumenak areagotu egin behar ziren. Hala, Europako Kontseiluaren zeregina indartu eta Europako Legebiltzarren eskumenak handitu egin zituzten. Estatueta-ko Ministroen Kontseilua, berriz, erabakiak gehiago kualifikatuz bidez hartzeko moduan izan zen orduetik aurrera.

Horren guztiaren ondorioz sortu zen 1993. urteko azaroaren lehenean Europako Batasuna, behingoz merkatu bakar osatu eta hori arautzeko eta estatu parte hartzaileen arteko elkarlaketza politikoa gauzatzeko. Horretarako, ordea, argi eta garbi zuten Europako herritarren partaidetza zuzena areagotu egin behar zela.

Urte berean, Ipar Europako herrialdeekin negoziatzen hasi zen Elkarre; Austria, Finlandia eta Suediarekin, alegia. Horien egoera ekonomikoa eta politikoa egokia zela eta, zailtasunik gabe egin zen negoziaketaren prozesua. Harrezkerotik, indarrean dago hamabost estatuen Europako Batasuna.

Hamabietatik hamabostetara (1986-1995)

◆ **Nikolaj Petersen** ◆ Aarhus-eko Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetako katedraduna

# «Salbuespenak egitea izan zen bide bakarra Danimarkak Maastricht onar zezan»

DANIMARKAK bi erreferendum egin behar izan zituen Maastrichteko Ituna onartzeko.

Bigarren bozketan baiezkoa nagusitu zen, baina hainbat salbuespen egin behar izan ziren Kopenhage moneta bakarrean eta defentsa bateratuan ez sartzeko.

■ **Zer testuingurutan garatu zen lehendabiziko erreferendumean izaniko ezezko botoa?**

Ezezkoa nagusitu zen baina oso alde murriztasun, bakar-bakarrik 46.000 lagun izan ziren balantzan. Arrazoiak hainbat dira. Haietako bat Danimarka Elkartean sartu zen garaitik dator, kezka eta eszeptizismoa ordutik datoz. EEEri mesfidantzaz begiratu zaio beti: gurean federalismoaren ideiak ez dauka sustengurik, jendeak ez ditu Europako Estatu Federatuak nahi. Danimarkan jende askok uste du Europako Batasuna gobernuen arteko kooperazio akordioak izan behar direla. Tradizionalki EB, Danimarkan, kasik elkarte ekonomiko huts baten gisa ikusi izan dute, ez erakunde politiko gisa. Maastrichten, aldiz, pauso batzuk egin ziren batasun politiko baterantz, beste ondorio batzuk ere ekarriko zituztenak: koroa danimarkarra desagertzea, moneta batasunean sartzeta, defentsa agian bateratua egitea.

Etxeko kontuak ere badaude. Tradizionalki ezkerria izan da hemen euroeszeptikoagoa baita sozialdemokraten artean ere, talde honetan kritikoak izan dira, eta Europaren barruan ez dira beti oso eroso kokatu. 1992ko erreferendumean kontserbadoreak

zeuden boterean, eta sozialdemokratak oposizioan. Ni oso seguru nago sozialdemokrata askok kontrako botoa eman zuela botoa gobernuaren kontra egiteko.

■ **Urtebete geroago baiezkoak irabazi zuen, Poul Nyrup Rasmussen sozialdemokrata lehen ministro zelarrik. Zer aldatu zen ordurako?**

Hurrengo urtean bi diferentzia izan ziren. Batetik, gobernua sozialdemokrata zen, eta orduan errazago izan zitzaizen sozialdemokrata euroeszeptikoei baiezkoa ematea. Lehen bozketan sozialdemokraten bi herenek

«Maastrichteko Itunak ezarri zituen hainbat baldintzatatik kanpo gelditu ginen. Europako diru batasunean ez genuela parte hartuko esan genuen, eta defentsa politika komuna ere ez genuen onartu»

bozkatu zuten Maastrichten kontra, %65ek. Ondoko urtean sozialdemokraten erdiek baiezkoaren alde eman zuten botoa. Bestetik, esan beharra dago tarre horretan salbuespenak onartu zitzaizkigula Maastrichten sartzeko. Europako diru batasunetik kanpo geratu ginen, baita defentsa politika bateratutik ere. Nik uste dut hauek direla bi arrazoi nagusiak.

Kontserbadoreek, boterean zeudenean, Maastricht osotasunean onartzea nahi zuten, baina onartzeko konponbidea bilatu behar izan zuten sozialdemokra-

tekin bigarren erreferenduma ez galtzeko. Izan ere, erreferendum bat galtzen duenak ezin du gero beste bat programa berarekin eratu, jendeak kontra erreakzionatuko bailuke. Defentsa eta moneta batasunean ez sartzeta izan zen konponbidea.

■ **Zergatik hain atzikimendu handia koroa bezalako moneta batekin?**

Koroa diru ahula zen duela hamabost urte arte, beti debaluazioekin zebilen, baina azken hamar urteotan sendo bihurtu da eta gurean hobera joan da ekonomia. Langabezia apal dago, Maastrichteko irizpideak bete egingo litzuzke Danimarkak, baina ez du euroan sartu nahi izan. Koroarekin sentimenduak ere nahasten dira, koroa eta erregina erlaziozaten dira, gure erreinuaren eta subiranotasunaren ereduak.

■ **Danimarkak Maastrichti emaniko ezezkoaren atzean auzoko handiaren beldurra eiz zegoen. Gaur ere halaxe da?**

Beharbada, inkontzienteki badaukagu auzokoak irentsiko ote gaituen beldurra. Eta auzokoa Alemania da, bai. Sakonean sentimendu hori dago alemaniarren kontrako. Historia dela eta. Sentimendu hori ezkutuan dago, ez da esaten, baina hor dago eta aspaldikoa da, gainera. Kanpainan ere erabili egin zuten ezezkoaren aldeko boto gehiago biltzeko asmoz.



Danimarkako Legebiltzarra, Kopenhage hiriburuko erdialdean.

ARTXIBOKOA

Ainhoa Oartzabal

Jose Mari Pastor

DONOSTIA



**BAI, HARPIDETZA SAILA?**



902 30 02 23

TELEFONOAK: 943 30 02 22  
**Egunkaria** 902 30 02 23  
 FAXA: 943 30 07 07  
 e-mail: harpidetza@egunkaria.jalgi.com  
 web gunea: www.jalgi.com/Egunkaria

**JAR ZAITEZ GUREKIN HARREMANETAN**

HARPIDETZA BERRIAK  
 IRADOKIZUNAK...  
 PROMOZIOAK...  
 ZALANTZAK...  
 GALDERAK...



JUAN MARI ARZAKEK  
 EGUNERO JASOTZEN DU  
 EGUNKARIA BERE ETXEAN

GURE BIZITZA  
 EUSKARAZ  
 EGIN NAHI  
 BADUGU, ZER HOBE  
 GOIZEAN GOIZ  
 EGUNKARIA  
 IRAKURRIZ  
 HASTE BAINO



Maastrichtetik Amsterdamera (1995-1998)

◆ **Aline Pailler** ◆ Europako Ezker Bateratuko diputatua Europako Legebiltzarrean

# «Orain oinarri juridikoak ditugu nahi ez dugun Europa aldatzeko»

Amsterdamgo Itunak Maastrichtekoaren oinarri ultraliberaletan oinarritu arren, puntu positiboak ere badituela uste du Aline Pailler eurodiputatuak. 1996an EBko giza eskubideei buruzko txostena prestatu zuen anderearen ustez, aukera horiek baliagarriak izan daitezke «nahi ez dugun Europa aldatzeko».

■ **Zeintzuk dira Amsterdamgo Itunaren alde positiboak eta negatiboak?**

Amsterdamgo Itunak ez du Maastrichtekoa zalantzan jartzen, eurora eramane gaituen finantza logikari segitu dio, baina badu gauza positiborik: Europaren eraikuntzaren historian lehen aldiz onartu da diskriminazioaren kontrako klausula bat. Honen arabera, ezin da inola ere inor diskriminatu arraza, etnia, erlijio, adin, ezintasun, sexu edo orientazio sexualagatik, hau da, homosexuala izateagatik. Uste dut hau oso puntu garrantzitsua dela baina nik zoritxarrez ezin dut Amsterdamgo Itunaren aldekoa izan, tratatu honek segitu egiten baitie Maastrichteko Itunaren oinarri ultraliberaletan.

■ **Europarmentaria zara eta 1996an EBko giza eskubideen egoerari buruzko txostena prestatu zenuen. Ze ondorio atera zenuen?**

Ondorioak ez dira oso pozgarriak. 1995. urtetik hona estatu guztiak gogortu egin dituzte atzeritarrekiko legeak; ezin estatuk

ere ez du sinatu langile emigranteak babesteko hitzarmena. Kontzentzio honek hogeitaz estaturen sinadura lortu behar du onartua izateko eta orain hamar batek baino ez du sinatu. Aski izango litzateke EBko estatuak sinatzea Karta aplikatu ahal izateko. Eskubide ekonomiko eta sozialak ere ez dira modu onenean egun. Ikusi egiten da malgutasun handiz aplikatzen direla eta eskubide sindikalari eraso egiten zaiola. Eguneroko arrazakeriari ere garrantzia kentzen zaio. Beraz, badira gauza kezagarri batzuk.

■ **Gizarte pluralismoa arriskuan dela esan izan duzu sarri.**

Bai, kultura eskubideak ere arriskuan daude, ez soilik Frantzia izan daitezkeen eskuin

«Europaren eraikuntzaren historian lehen aldiz onartu da diskriminazioaren kontrako klausula bat.

Honen arabera, ezin da inola ere inor diskriminatu arraza, etnia, erlijio, adin, ezintasun, sexu edo orientazio sexualagatik»

muturreko udaletxeetan, baita kultura eta komunikabideen arloan, orokorrean, dagoen produkzio medioen pilaketa dela eta. Honek zaildu egiten dio jendeari pluralismoaren barruan euren

jarrera eta irizkiak azaltzea. Beraz nahiko kezkatu gaude arlo honetako zenbait gauzak ondo ez doazelako. Zerrenda luzeagoa izango litzateke. Bilanoa, beraz, ez da ona.

■ **Egun ezker dago boterean eta aukera izan daiteke Europa sozialerantz bultzatzeko, askok diotenez.**

Nik esan nahi nuke gehiengo hau ez dela berria, hamabostetik hamahiru izan baino lehen hamaika zirelako ezkerreko partiduak. Beraz, gehiengo sozialdemokrata hau ez da berria, orain handiagoa da, besterik ez, Alemania, Erresuma Batua eta Frantzia ere hor daudelako. Honek hamahiru estatu egiten ditu hamabosten artean, baina logika ultraliberala hor dago gehiengo sozialdemokrata egon arren, eta logika ultraliberal honek ez du gauza handirik egiten uzten.

■ **Baina askok diote baldintza hobeak izango direla beti sozialdemokratekin.**

Sentitu egiten dut baina esan beharra dago sozialdemokrazia ez dela ezkerreko egun, liberala baizik, kutsu humanitario edo sozialaz jantzia, bai, baina sozialdemokrazia honek liberalismoan ditu oinarriak. Hau penagarria da, ze jendeak orduan irudipena dauka beste alternatibarik ez dagoela hori baino, eta arriskua dago jende hori politika mundutik aldentzeko, interesa galtzeko. Hau gertatzen bada, politikatik

paso egingo dute herritarrek edo, bestela, erreboltak izango dira etsipenezko ekintzen bidez. Frantzia aldiro aldiro gertatu egiten den bezala.

«Hamabost estatuak gai izan dira estabilitate paktua onartu eta zigorrak jartzeko, baina enpleguari buruzko orientabideak onestea Koloniako bilkura izan arte atzeratzea erabaki dute»

■ **Amsterdamgo Itunak puntu positiboak badirela esan duzu. Orduan, posibilitateak ematen ditu honek gauzak aldatzeko?**

Nik uste dut politikoki halaxe planteatu egin behar dela afera. Hori bidea izan daiteke Europa aldarazi nahi baldin bada, Europa sozialago bihurtzeko, herriaren eta giza eskubideen Europa, hain zuzen. Orain, gainera, oinarri juridikoak ditugu nahi ez dugun Europa aldatzeko, borroka horiek nork bere herrian aurrera eramateko, zerbitzu publikoak indartzeko, giza eskubideak errespetarazteko, eskubide sozialak eta ekonomikoak exigitzeko. Hau Amsterdamgo Itunean dago eta ezinbestekoa da jendeak borroka hauek egiteko oinarri juridi-

koak badaudela jakitea. Eta horregatik jendeak, alderdiek, elkarteek eta sindikatuek interesa ukan behar dute Europaren, batez ere Europa mota hau gustokoa ez badute beste- la eraikitzen hasteko. Baliabideak ditugu, borroka horiek garatu egin behar ditugu.

■ **Vienako bileran lanari buruzko akordioa lortu da lehen aldiz, Delorsen Liburu Zurian oinarrituta neurri batean.**

Delorsen Liburu Zuria oso liberala da. Nik Informazioaren Txostena egin dut eta badakit telekomunikabideen arloak aukerak ematen dituela, baina potentzial hau ez da ondo explotatua, enpleguak kendu dira, zerbitzu publikoak desagertarazi. Lanpostuak sortzeko borondate politikoa behar da eta hori ez dago. Vienako gailurra porrota izan zen, orientabidea baino ez da; bertan hitzartuak ez du obligazio zentzu edo baliorik, gomendioak besterik ez dira. Vienan ez da erabat onartua izan, atzeratu egin dute Koloniako bilerarako sei hilabeteren buruan. Hamabost estatuak gai dira estabilitate paktua onartu eta gainera zigorrak jartzeko, baina enpleguari buruzko orientabideak atzeratu egiten dituzte. Honek argi erakusten du Europa soziala eraikitzeko zailtasuna.

**Ainhoa Oartzabal**  
**Jose Mari Pastor**

DONOSTIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GARRAIO ETA HERRILAN SAILA DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS  
 Itsas Arduralaritza Eskola Escuela de Administración Marítima

ITSAS ARDURALARITZA ESKOLA  
**ITSAS PORTUETAKO ENPRESEN KUDEAKETARAKO MASTER DIPLOMA**

MASTERRAREN BIGARREN HIRUHILABETEKOAREN HASIERA (Hasiera eguna; 1999ko urtarrilaren 18a)

M 4 - Euskal Herriko Itsas Ekonomiaren Historia (Iraupena 12 ordu)  
 - **Jesús Mari Valdaliso doktorea, EHU-ko irakaslea.**

M 6 - Itsas Ekonomia (Iraupena 36 ordu)  
 - **Javier San José, Deustuko Unibertsitateko irakaslea.**

M 8 - Nazioarteko Ekonomia (Iraupena 36 ordu)  
 - **Koldo Garatea jauna, Bilbaoko Nabigazio Zibileko Goi Mailako Eskolako irakaslea.**

- Masterrak 10 modulu ditu, hiru hiruhilabetekotan banatuta emango dira eskolak, eta urte batean, bitan nahiz hirutan egin ahal izango da.
- Ikastaroen kostua: 12 ordu, 10.000 pta.

Argibideak: ITSAS ARDURALARITZA ESKOLA  
 Gran Vía, 81-8. - 5. Dptoa. 48011 BILBAO  
 Telf.: 94.4271864 • Fax.: 94.4414939

LEA ARTIBAI IKASTETXEA  
 Xemein-etorbidea 19  
 CORPORACION COOPERATIVA  
 Tfnoa: 94-6169002 / Faxa: 94-6169160

**IKASTAROAK-CURSOS**  
 URTARRILA - ENERO

**INICIACION A LA PROGRAMACION Y PUESTA A PUNTO DE MAQUINAS CNC**  
 Duración: 40 horas Desde el 18 hasta el 29

**INTRODUCCION AL CAD (AUTOCAD V.14)**  
 Duración: 30 horas Desde el 18 hasta el 29

**PRO-ENGINEER NIVEL II**  
 Duración: 40 horas Desde el 18 hasta el 29

MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

**GARATZEN**

# EBk Atlantikotik Baltikora jauzi egiteko prestatzeari ekin dio

*Azaroan hasi zen Europako Batasuna eta ekialdeko sei estaturen arteko negoziazioa*

Bide zaila egin du Europako Batasunak gaur egungo egoerara iristeko. 1957. urtea baino lehenagotik hasita, hainbat oztopo eta desadostasun izan dituzte egun Europako Batasuna osatzen duten herrialdeek euren artean.

Urte hartan Erroman sinatu zuten Tratatuaren bitartez eratu zen lehenengo aldiz Europako estatuen arteko elkarte ekonomikoa. Italia, Alemania, Frantzia eta Beneluxeko herrialdeak -Holanda, Belgika eta Luxenburgoko-, Europako Ekonomia Elkartean bildu ziren. Elkartetaren emaitzak ikusirik, Danimarka, Erresuma Batua eta Irlandak bat egin zuten 1973. urtean aipatu erakundearekin. Elkartean sartzeko eskaera lehenago egin arren, Frantziaren ezezkua zela eta, atzeratu egin behar izan zen britaniarren eta bere kideen sarrera.

Hego Europako herrialdeen txanda heldu zen 80. go hamarkadan. Grezia 1981. urtean sartu zen EEEn; bost urte geroago, berriz, Espainia eta Portugal. Garai hartatik gaur egunera arte diraute erregio pobreeni laguntza ekonomikoa emateko politikak. Urteak aurrera joan ahala Europako Elkarte Ekonomikoa, diru batasunaz gainera, batasun politikoaz hornitzeko beharra atzeman zen. Horren ondorioz sortu zen Maastrichteko Ituna. Eta Itunaren hutsuneak betetzeko asmotan egin zuten 1995ean Amsterdamgo bilkura, baina oraindik orain bere horretan jarraitzen dute orduan aztertutako hainbat arazok, sozial mailakoek batez ere.

## Europa ekialdeko herrialdeen sarrera negoziatzen

Europako Batasunaren gaur egungo erronkarik garrantzitsuenetakoa Europako ekialdeko herrialdeen sarrera da. Aurtengo

azaroan hasi dira negoziatzen Europako ekialdeko sei herrialdeekin EBrako sarrera. Hungaria, Polonia, Txekiar Errepublika, Eslovenia, Estonia eta Txipre dira lehen negoziaketa txandan parte hartzen ari diren estatuak.

Horiekin burutuko dituzten negoziaketek baldintzatuko dute Europako ekialdeko beste bost herrialderen sarrera. Letonia, Lituania, Errumania, Bulgaria eta Eslovakia ditugu estatu horiek. Hala ere, 2004. urtera arte gutxienez ez dira sartuko Europako Batasunaren barruan.


## Antolaketa eredu sendoaren beharra

Eztabaida eta desadostasunak daude -EBren historian gertatu izan den moduan- Europako antolaketa politikoari buruz. Estatuaren batuketa soil bat baino gehiago den EB arautzeko antolaketa politiko sendo eta demokratiko baten beharra dago. Hala ere, estatu bakoitzak bere interes propioei jarraitzen die oraindik. Hala, Alemaniak, adibidez, egonkortasun ekonomikoa lortu nahi du beste guztiaren gainetik; Frantziak, berriz, Europa soziala delakoa landu nahi du, langabeziari eta eskubide sozialen auziari lehentasuna emateko. Frantzia eta Alemaniak segitzen dute Europako Batasunaren ardatz nagusia izaten, baina Erresuma Batua erakarri nahian ari dira Europako integrazioa gauzatzen hasteko.

Inoiz baino beharrezkoagoa da, ordea, estatu bakoitzaren papera zein den eta horien gaindiko erakundeek zer egin behar duten adostea, Europako Batasunaren partaide bakoitzaren interesak eta elkartaren beraren interesak behar bezala bermatzeko.

**Ainhoa Oartzabal**

DONOSTIA



## Europa ekialdeko herrialdeen egoera ekonomiko ezberdinak

EUROPA ekialdeko herrialde berrien sarrera da gaur egun Europako Batasunak eskuartean duen lanik zail eta korapilatsuena. Zaila izateko arrazoi bi daude: batetik, Europa hegoaldeko estatuak ekialderanzko zabaltzearen ondorioz kohesio fondoak galduko ote dituzten beldur dira; bestetik, ekialdeko herrialdeen egoera ekonomiko desberdina dago.

Europa hegoaldeko herrialdeek ahalik eta

gehien atzeratu nahi dute ekialdekoen sarrera, bestela kohesio fondoak laguntza murriztu egingo baitiote. Alemaniak, berriz, azkartu egin nahi du prozesu hori. Izan ere, euren mugen ondoko estatuekin merkatu zabala dute alemaniarrek.

Hori guztia argi eta garbi ikusi da Europa Batasuneko herrialdeek Vienan egin berri duten bilkuran. Hegoaldeko herrialdeek ez dituzte erregioen garapenean laguntzeko berez dagoz-

kien errekurtsoak murriztu eta beste herrialdeei eman behariko litzazkiekeenei gehitzea, lehenago agindutako dirua baita. Baina ekialdeko herrialdeek beharrezko dute EBn besteen maila berean egoteko laguntza.

Izan ere, egoera ekonomiko kaskarrean daude estatu hauek. Poloniak %9,1eko inflazioa izan du azken urte honetan, eta Europa Batasuneko beste herrialde batekin alderatuz gero, ezberdintasun handia dago

portzenataia honetan. Alemaniak adibidez, %1,5eko inflazioa izan du.

Hazkunde ekonomikoari dagokionez, berriz, nahikoa azkar doa Europa ekialdeko herrialdeen garapena. Hungariak %5eko hazkundeak izan du aurtengoa; Esloveniak, ostera, %0,8koa bakarrik izan du. Datu horiek ekialdeko herrialde batzuen ekonomia hobetuz doala erakusten digute, baina guztien egoera berbera ez dela azalduz.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria**

*Ekiialderantz hedatzeko lehen pausoak*

◆ **András Inotai** ◆ Hungariako Zientzi Akademiako Mundu Ekonomiako Institutuko zuzendaria

# «Hobe da Europa Batasuneko periferia izatea kanpoko periferia izatea baino»

ANDRAS INOTAI Europaren Integratziarako Aholkularitza Batzordeko zuzendaria izan zen Gyula Horn Hungariako lehen ministro ohiaren garaian. Egun Budapesten Zientzi Akademiako Mundu Ekonomiako Institutuko buru denak esan duenez, EBn sartzeko bidea duela 20 urte prestatzen hasi zen Hungaria.

■ **Zein egoeratan dago Hungaria Europako Batasunera sartzeko prozesuan?**

Nahiko egoera onean dago, baina zenbait gauza hobetu behar ditu Europako Batasunera sartu aurretik. Hala ere, elkartu behar duten beste herrialde berrien aldean ongi prestatuta gaude.

Datu makroekonomikoei dagokienez, adibidez, inflazio edota langabezi tasa uste baino gehiago jaitsi da: %10a inguru hain zuzen. Hazkunde ekonomikoa, berriz, urteko %5ekoa izan da. Hori guztia azken bi hamarkadetan mikroekonomian egin diren aldaketen ondorioetako bat da, eta hori ez dute egin orain sartu asmo duten beste herrialdeek. Beraz, makroekonomian gertatu diren aldaketak Hungariaren mikroekonomia bizian oinarritu dira. Jabegoaren %80a pribatizatua dago, eta merkatuaren legeen arabera egin zen pribatizazio hori. Bestalde, atzerriko inbertsioek 20.000 milioi dolar jarri dute zuzenean Hungarian, eta estruktura ekonomiko bat eraiki dute. Ondorioz, Hungariako industria eta zerbitzuen sektorea Europako merkatuan kon-

petitzeko gai da. Iaz, adibidez, Espainiak baino makina gehiago (%20 gehiago) esportatu genuen Alemaniara, eta duela hamar urteko Espainiako esportazioa gurea baino hiru aldiz handiagoa zen. Hungariako esportazioen erdia makinek, garraiobideek eta tresna elektronikoei osatzen dute. Esportazioen %36a Txekiar Errepublikara, %38a Esloveniara, eta %20a Poloniara bidaltzen dugu. Beraz, lehen saioan Europako Batasunera elkartuko diren herrialdeen aldean oso egitura ekonomiko desberdina dugu.

«Hungariak bere ekonomia modernizatzeko egin dituen aldaketak ez dira lotu behar EBrako sarrerarekin. Lehenago hasi ginen aldaketa horiek egiten»

■ **Nola ari dira garatzen Europa ekialdeko herriak EBrara sartzeko negoziaketak? Denak batera sartuko al zarete Europen?**

Ez dakigu oraindik denak batera sartuko ote garen, baina negoziaketak azaroan hasi ziren Hungaria, Polonia, Txekiar Errepublika, Eslovenia, Estonia eta Txiprerekin. Datorren urtean negoziazio prozesuaren bigarren txanda hasiko da, eta orduan erabakiko da herrialde horiekin negoziatzen noiz hasi, eta, ondorioz, noiz sartu.

■ **Nola ikusi dute Hungariako**

**herriarrek elkarketa? Zein sakrifizio egin dute?**

Europako Batasunarekin elkartzeko dugun ahalmena ezin da bereizi Hungariaren transformazio etapatik. Hau da, herrialdearen modernizazio, aldaketa sozioekonomiko eta lanaren banaketa globala EBrara sartu aurretik gauzatu ditugu. Beraz, Hungariak egin dituen sakrifizioak ez dira Europako Batasunaren sarrerarekin lotu behar; elkartera sartu ezean aldaketa horiek egingo baikenituen.

Herritarren gehiengoak espero du Europako Batasunak hazkunde ekonomiko iraunkor bat ziurtatzen laguntzea. Hala ere, duela hamabost urteko ikuspegia -Europako Batasunean sartzean diru gehiago irabaziko genuela eta abar- aldatu egin da. Izan ere, baliteke batzuk galtzaile irtetea, beharbada nahikoa lan egin ez dutelako Europako Batasunera moldatzeko. Elkartera sartzeko hainbat aldakuntza egin beharko dituzte estatu horiek. Bestalde, gu -Europa Ekialdeko estatuok- Europako Batasunean sartzen ez baldin bagara, zuek -Europa Hegoaldeko herrialdeok- galtzen irtengo zarete. Hemen, Hungarian, zenbait sektore minoritariok esaten dute EBan sartuz gero elkarteko periferia izango garela. Baina hobe da Europako periferia izan kanpoko periferia izan baino.

Ainhoa Oartzabal

Jose Mari Pastor

DONOSTIA



Budapesten -argazkian- eta Hungarian orohar aspaldi ekin zioten EBn sartzeko erreforma ekonomikoari.

ARTXIBOKOA

**Egunkaria**  
KLASIKOAK

**Klasikoen bildumaren banaketari amaiera eman diogu.**  
Beharbada CDren bat eskuratu ezinik geratu zara. Hala bada, ez galdu bilduma osatzeko aukera. Jo ezazu ohiko kioskora eta egin ezazu zure eskaera. Astebeteren buruan eskura jarriko dizugu behar duzun materiala.

**ESKATU**  
**CD**  
**ATZERATUAK**  
**ZURE**  
**KIOSKOAN**

# Etorkizuneko egituraketa garatzen

*EBko estatu eta herrien eskumen politikoaren banaketa zehaztuko da ondoko urteetan*

**E**gitura arazoak ditu oraindik Europako Batasunak. Europako herrialdeak hainbat proiekturen baitan elkartzen hasi ziren garaitik datoz arazo horiek; izan ere, estatuen arteko interesak arras ezberdinak izan dira. Ondorioz, EBko kideak ez dira bat etorri Europako merkaturak eta instituzioak nola kontrolatu erabakitze-ko orduan, ezta Europako Batasunari zein eskumen utzi hitzartzerakoan ere.

Hala ere, hainbat eztabaidaren barruan, aurrerapauso garrantzitsuak emateko gai izan dira. Besteak beste, diru batasuna egin dute EBko hamaika estatuk eta euroa urte berriarekin batera jarriko da indarrean. Horrek merkatu bakar eta batua eraikitze-ko balioko duen arren, hainbat desoreka ekonomiko gaitzeko politika bereziak jarri behar dituzte indarrean. Kohesio fondon bitartez emango zaie laguntza ekonomiko beharrean dauden herrialde horiei. Gainera, Europako ekialdeko herrialdeen sarrera dela eta, kohesio fondo horiek ugartu egin beharko dira herrialde berrien egoera hobetzeko.

## Europako Batasuna nola

**egituratu erabakitze-ko eztabaidak** Botere ekonomiko indartsua duten estatuak izan dira Europako Batasunaren bultzatzaile nagusiak. Horien artean Alemania eta Frantzia nabarmendu dira; izan ere, eurek dute estatuen arteko mugak kendu eta merkaturak zabaltzeko interes gehien. Hainbat estatuk inguruta, abantaila ekonomiko garrantzitsuak eskaini zizkion Alemaniari muga-zergak kentzeko.

Horrexegatik, hain zuzen, aldarrikatu zuen Alemaniak Europa federalaren antolaketa. Egitura horrekin estatuak gaindiko antolaketa ekonomikoa izango luke Europak.

## Estaturik gabeko nazioen egoera erabakitze-ko

Konpondu gabe dagoen beste arazo bat estaturik ez duten nazio eta herrialdeen egoera da. Izan ere, muga-zergak kentzean estatuen arteko erlazioak malgutu egin dira. Horrek, ordea, ez du esan nahi estatuen protagonismoa albo batera utzi dutenik, oraindik estatuetako gobernu eta ministroak baitira Europako Batasuneko erabaki garrantzitsuenak hartzen dituztenak.

Nahiz eta Europako Batasunak estatuetan dauden eskualdeak ordezkatuak izateko baliabideak eskaini, estatu horiek ez dute mekanismo hori erabiltzeko obligaziorik. Izan ere, ez dago estatuen gaindiko legerik Europako estatuak behartuko ditue-



Europako Legebiltzarraren egoitza, Bruselan.

ARTXIBOKOA

Europako Batasuneko estatu bakoitzaren esku dago bere baitan dauden eskualde eta lurraldeei ordezkaritza eman edo ez erabakitzea

na beren barneko nazioak ezagutzera.

Ondorioz, estatu bakoitzaren esku dago beren baitan dauden eskualde eta lurraldeei ordezkaritza eman edo ez erabakitzea. Belgikak, adibidez, onartu die bai Flandriari eta bai Waloniari Europako Batasunean euren ahots propioz agertzeko ahalmena.

Zehaztu beharrekoa da ordezkaritza hori dagokion estatuaren bidez egiten dela. Baina gutxienez zenbait gaitan zuzenean parte hartzeko aukera dute aipatu herrialdeek.

## Europako Batasunaren instituzio garrantzitsuenak

Europako Batzordea da EBren erakunderik originalena. Zeregin exekutiboaren eta administratiboen arteko erakundea da, ez baita ez Batasunaren gobernuak, ezta gobernuen arteko elkarketa xume bat ere. Bere funtzioak ez dira aldatu Erromako Tratatuetan.

## EUROPAKO LEGEBILTZARRA

ESERLEKUEK BANAKETA ESTATUZ ESTATU

Alemania	99	Portugal	25
Frantzia	87	Suedia	22
Erresuma Batua	87	Austria	21
Italia	87	Danimarka	16
Espania	64	Finlandia	16
Holanda	31	Irlanda	15
Belgika	25	Luxenburgo	6
Grezia	25		

A. PEÑALBA

## Europako Legebiltzarra eta Konstituzioaren beharra

EUROPAKO Konstituzioa eratzeko eta Europako Legebiltzarrari eskumenak gehitzea dira gaur egun EBk dituen behar nagusiak.

Europako Legebiltzarra herri-tarrek zuzenean aukeratzeko duten nazioz gaindiko erakunde bakarra da. Europako Batasuneko 370 milioi bizilagun ordezkatzen dituen arren, gabezia demokratiko handiak ditu Legebiltzarrak. Izan ere, ez du zeregin legegilerik. Hala ere, Ministroen Kontseiluen erabakietan parte hartzeko eta aurrekontuak erabakitze-ko ahalmena du. Horretaz gain, hainbat eskumen ditu herrialdeak Europako Batasuneko legeak betetzen ari diren kontrolatzeko.

Hala ere, gabezia handia sortu da Europako Batasunaren baitan eskumenak ugartzen eta herrialde berriak sartzen joan diren heinean. Hori kudeatzeak hainbat arazo sortu ditu jada.

Beraz, Europako Batasunak aurrerantzean eduki behar dituen kompetentziak eta kontinenteko herritarren giza eskubideak zehaztu behar dira lehenbailehen; Europako Konstituzioa, alegia. Halaber, konstituzio horrek estatu bakoitzaren eskumenak zeintzuk diren zehazteko balioko du. Horrela, ongi berezita geldituko lirarteke estatu kide bakoitzaren zereginak eta Europako Batasunarenak.

Europako Legebiltzarra herritarrek zuzenean aukeratzeko duten nazioz gaindiko erakunde bakarra da munduan

geroztik (1957). Beraz, eta erakunde administratibo gehienentzera, arazoak ditu ongi funtzionatzeko.

Europako Batasunaren erabakigune garrantzitsuenetakoa, ordea, Ministroen Kontseilua da. Zeregin legegileak eta exekutiboak betetzen ditu, eta estatu bakoitzeko sektore jakin bateko ministroak biltzen dira bertan. Erabakiak aho batez edota gehiengo kualifikatuz hartzen dituzte ministroek, eta ministro kopurua beren estatuko biztanle kopuruaren arabera erabakitzen da.

Bestalde, Europako Kontseiluan estatu bakoitzeko ministro eta gobernariak biltzen dira. Eta horrek erabaki garrantzitsuak hartzea ziurtatu beharko lukeen arren, askotan ez da gai izan Europako arazoak behar bezala aurre egiteko.

Ainhoa Oizartzabal  
DONOSTIA

Geroaren erronkak

◆ Josu Jon Imaz ◆ EAJko eurodiputatu

# «Europak mugak ahulduko ditu»

IZATEZ Zumarragakoa da, baina Donostian, Estrasburgon eta Brusela artean bizi da Josu Jon Imaz Europako Legebiltzarreko diputatu euskalduna. Europako Legebiltzarretik, Gabonetako oporrak hartuta, Donostiatik Bilbora bidean geldialditxo bat egin du EGUNKARIAREN erredakzioan, gure galderei erantzuteko. Bere esanetan, euskaldunok Europan egotea derrigorrezkoa da herriari eusteko.

■ **Datorren urtean izango dira Europako Legebiltzarra aukeratzeko hauteskundeak. Zergiro atzematen duzu hauteskunderi begira?**

Aldaketa garaian gaude Euskal Herrian, eta Europako hauteskundeak udal eta foru hauteskunderiekin batera izango direnez —ekainaren 13an—, azken horiek izango dute garrantzi gehien. Beraz, Europako hauteskunderiek badute bigarren maila batean gelditzeko arriskurik.

Hala ere, gauza baldin bagara Europa honi zentzu bat emateko, uste dut kontrol mekanismoak indartu egin behar ditugula. Europako Batasunaren proiektua ona da, nolabait estatu-nazio egitura gainditu egiten duelako eta beste proiektu bat sortu. Gainera, aldaketa handiak izan dira azkenaldian Europako Batzordean, eta, ondorioz, botere handiak ari dira zentralizatzen. Baina botere guztiak kontrol neurriak behar dituela uste dut. Eta kontrol demokratiko garrantzitsuena herritarrentzat Legebiltzarra denez, beharrezkoa da botere gehiago ematea herritarrek hori guztia kontrolatzeko tresna izan dezaten.

■ **Nola ikusten duzu orain arteko lana?**

Balantzeari dagokionez, Europako proiektuak aurrerapen handiak egin ditu botere komunaren sorreran. Akats handiena, egun Espainiako Estatuak Europan tresna eta baliabide guztiak monopolizatzen dituen gero, Euskal Herriak Europako erabakitzeko prozesu horietan esku hartzeko aukerarik ez edukitzea da. Hauteskunderi begira, tristea da oraindik Euskal Herriak hautesbarruti propioa ez izatea. Gaur egun Europan deszentralizatuta dauden estatu askok hautesbarruti pluralak dituzte eskualde aniztasun hori jasotzeko.

■ **Alemaniko Kanpo Arazoetako ministro Joschka Fischerren esanetan, EBko estatuak jarraituko dute protagonista izaten. Beraz, zein da estaturik gabeko nazioen egoera?**

Europak baditu mekanismoak gu bezalako lurraldeak nolabait ordezkatzeko. Belgikako Flandria eta Walonia eskualdeek badute bide bat Europako ministro kontseiluetan parte hartzeko. Beraz, EBk badu horretarako mekanismoa; Espainiaren jarrera itxiak oztopatzen du bide hori. Ondo-



Josu Jon Imaz.  
JACOBA MANTEROLA

rioz, EAEk edo Nafarroak autogobernuan lortu dituzten eskumen batzuk Madrilgo Gobernuak berreskuratu egiten ditu EBren bidez.

Espainiaren eta beste zenbait estaturen erreakzioa nazionalismo baten erreakziotzat joko nuke. Europan estatuak izan duten indarra, boterearen monopolio hori, murrizten ari baita.

■ **Zer ondorio ekarriko dizkigu ahulezia horrek?**

Ahulezia hori ikusiz, Espainia, Frantzia eta Europako beste zenbait estatu, erreakzio moduan, beren identitate ezaugarriak indartu nahian ari dira. Horrek baditu guretzat arriskuak, baina, bestetik, onurak ekarriko ditu. Europak estatu-nazio monopolistiko hori ahultzen doan arabera, beste espazio berri batzuk sortzeko aukerak baitaude. Euskal Herriarentzat aukera proiektu bat dakar, baina tartean etsai eta oztopo ugari izango ditugu.

■ **Eta nola lortuko da ordezkartza maila hori?**

Euskal Herriarentzat derrigorrezkoa da Europako Kontseiluan ordezkartza lortzea. Fase honetan Espainiako Estatuaren bidez edota Frantziako Estatuaren bidez egin beharko dugu ordezkartza hori. Euskal Herrian, abertzaleen artean, botere egitasmo berri bat osatzeko asmoa badago, eta egitasmo horren ardatz nagusi bat Europan izan behar dugun partaidetza dela uste dut. Europa barruan presentziarik ez badugu, nazio bezala izan dezakegun botere egitasmoa murrizta geldi-

*«Europan, estatu-nazio monopolistiko hori ahultzen doan heinean, beste espazio berri batzuk sortzeko aukerak daude»*

*«Defizit demokratiko izugarria du oraindik Europako Batasunak, eta, eskumenak areagotzen doazen arabera, kontrol politikoaren neurriak ere gehitu egin behar dira»*

tuko litzateke. Euskal Herrian indarrak biltzeko dugun gaitasunaren arabera garatuko da hori, gauza baldin bagara abertzaleon proiektu batetik gure indarrak zabaltzeko. Gainera, mugen ahultze prozesu horrek aukera berriak sortuko ditu lotura maila bat lortzeko Ipar eta Hego Euskal Herriaren artean.

Askotan, proiektu politikoak errealitate bihurtzeko, sustraitu egin behar da, eta Europak, mugak ahultzen doazen heinean, aukera emango digu euskaldunoi gure arteko lotura sendotuz joateko. Orain 20 urte ezinezkoa agertzen zen hori gaur egun zaila baina posible izan daiteke.

■ **Nola eragingo digute Kohesio Funderen eta Agenda 2000ren negoziaketek?**  
Europa ezin da merkatu

hutsen gelditu. Ekonomia Europaren eraikuntzaren aurretik joan da, baina egitura politikoak behar dira hori kontrolatzeko. Hala, merkatu batu batean aukera gutxiago dituenak galtzaile irten ez dadin.

Fondo horiek beharrezkoak dira ezberdintasunak dauden bitartean, eta momentu honetan gu baino askoz ere pobregoa diren estatu berri batzuk daude sartzean. Guztien beharrei erantzuteko fondo horiek handitu egin behar dira, beraz, estatu bakoitzak gehiago ordaintzea derrigorrezkoa da. Diru gehien jartzen duten estatuak ez daude hori egiteko prest, beraz, negoziaketa gogorak izango dira. Alemaniak, adibidez, bere egoera berrikusi beharko du, asko ordaindu arren asko jasotzen baitu Europako merkatutik.

Guk beste arazo bat daukagu. Gure interesak defendituko dituen Espainiako Estatuak da. Eta Espainiak errenta baxuko eskualdeen interesak defendituko ditu. Gure beharrek, ordea, bestelakoak dira, guk industria eta nekazaritza egiturako laguntzak behar ditugu.

■ **Amsterdamgo bilkuran mahai gainean gelditu ziren hainbat gai, langabezia kasu. Noiz helduko zaie gai horiei?**

Gaur egun langabezia estatu bakoitzaren ardura da. Baina hemendik aurrera Europak tresna garrantzitsua izan behar du arazo hori konpontzeko, euroaren bitartez, alajaina. Baina balioko al du diru batasunak hazkunde ekonomikoa bultzatze-

ko? Eta bankuaren izaera independentea izango al da? Izan ere, Alemaniak euro indartsu bat nahi du, eta hori ongi dago gauza batzuetarako, baina ez denetarako.

■ **Zer ondorio kaltegarri ekar diezazuke guri?**

Euroak dolarrarekin izango duen parekotasun hori garrantzitsua izango da gure enpresarentzat; izan ere, euro indartsu batek esportaziorako arazoak ekar diezazkiguke. Beraz, arazo ekonomiko horiek arautzeko irizpide politiko batzuk behar dira. Saiatu behar dugu, moneta politika horren independentzia urratu gabe, botere politikoaren alde-rik kontraerak jartzen. Gobernu ekonomiko bat da Europako Batasunak aurrera begira duen erronka.

Europa honetan beldurra ematen didana da geroz eta botere gehiago ari dela kontzentratzen Bruselan, eta botere guztiek kontrol politikoa behar dute. Eta gaur egun zein da Europako legegilea? Ba al du Europako Legebiltzarrek kontrol politikoa egiteko? Bai, baina neurri txikian, zeren eta gaur egun estatu-estatu ministroen Europako Kontseiluan hartzen dituen erabaki nagusiak, eta horiek ez dituzte herritarrek aukeratu, Gobernuak baizik. Defizit demokratiko izugarria du oraindik Europako Batasunak, eta eskumenak areagotu ahala kontrol politikoaren neurriak ere gehitu egin behar dira.

Ainhoa Oartzabal  
DONOSTIA